

① Osatu islamari buruzko fitxa, honako hitz hauekin:

- a) Jainkoa:
- b) Profeta:
- c) Liburu sakratua:
- d) Otoitzerako eremua:

② Erantzun.

- a) Non bizi zen Al Andaluseko biztanleriaren gehiengoa?
- b) Zer hobekuntza ekarri zituzten musulmanek nekazaritzara?
- c) Al Andaluseko zer ezaugarri ditu gure kulturak?

③ Osatu Al Andaluseko gizarteari buruzko eskema hau.

Gizartea	{	- _____ : talde boteretsuena. Gobernu-karguak bete eta lur onenen jabeak ziren.
		- muladiak: _____
		- _____ : Al Andalusen beren erlijioa praktikatzen jarraitu zuten kristauak ziren.
		- juduak: _____

④ Idatzi egia (E) edo gezurra (G) diren:

- a) Musulman guztiek derrigorrezko bost betebeharrak dituzte.
- b) Mahoma jainko bakartzat onartu behar dute, eta Ala haren profetatzat.
- c) Asteaz bost aldiz egin behar dute otoitz.
- d) Gutxienez bizitzan behin, Mekara erromesaldia egin behar dute.
- e) Ramadan astean barau egin behar dute.
- f) Behartsuei limosna eman behar diete.
- g) Musulmanak meskitara joaten dira otoitz egitera eta beren erlijioaren oinarriak ikastera.